

Sustraia eta Oinarria

Gizona Jainko gure Jauna goresteko, jauresteko eta zerbitzatzeko egina da eta, horren bidez, bere arima salbatzeko; eta lur gaineko beste gauzak gizonarentzat eginak dira, zein xedetarako egina izan den gizona, huraxe erdiesten lagun diezaioten.

Horra zergatik gizonak haietaz baliatu behar duen bere xederako laguntzen dioten adina, eta haietatik aldendu hartarako galarazten dioten adina.

Horregatik, gauza kreatu guztientzako ezaxolak izan behar dugu, gure hautamenaren aukera libreari zilegi eta debekatua ez zaion guztian; halako gisaz non geure aldetik ez dezagun izan nahiago osasuna eritasuna baino, aberastasuna pobrezia baino, ohorea desohorea baino, bizitza luzea laburra baino, eta berdin gainerako guztian; bakar-bakarrik irrikatzen eta hautatzen dugula ongiena garamatzana sortuak izan garen xedera.

(Loiolako San Inazioaren Gogojardunak, 23)

